



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARTE  
EDERREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE BELLAS  
ARTES

# ARTE GARAIKIDEAREN KONTSERBAZIOA ETA ERAKUSMOLDEAK MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

CYXAC masterrak prestakuntza aurreratua eskaintzen du Arte Garaikidearen Kontserbazioan eta Erakusmoldeetan. Azken urteetan kultura eta artea hedatzeko lanak nabarmen ugaritu dira Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gero eta gehiago dira artearen zaintza, kontserbazio eta erakusketa moldeetan interesa duten museo eta erakundeak.

CYXAC masterra pentsatuta dago ikertzaileak bi arlotan prestatu eta gaitzeko. Bertan proposatzen diren ikerketa ildoak Artearen eta Musikaren Historia Sailak eta Margolaritza Saileko Kontserbazio eta Zaharberritze Atalak gidatuko dituzte.

Batetik, ikerketa historiko eta dokumentala jorratzen da. Arlo honetan agerian jartzen da zein garrantzitsua den artelana testuinguruan jartzea haren ikerketari abia emateko. Bestalde, materialen ikerketa lantzen da. Arlo honetan aztertzen dira artelanen osagaiak eta haiek hondatzea dakarten eragileak eta kausak.

Masterrak prestakuntza sendo eta espezializatua emango die ikasleei, eta ateak irekiko dizkie arlo berrietan lan egiteko kontserbazioaren, artearen historiaren eta arte garaikidearen erakusmoldeen arloetan.

### Helburuak:

1. Arte garaikidearen ikertzaileak prestatu eta gaitzea, bai materialen alderdiari dagokionez, kontserbazioaren esparruan, eta bai alderdi historiko dokumentalari dagokionez.
2. Diziplina anitzeko ikasketa espezializatuak ematea arte garaikideari eta haren zaintza, zabalkunde eta erakusmoldeen inguruan.
3. Ikasleei prestakuntza ematea arte garaikidearen konplexutasun eta espezifikotasuna analizatu, kritikatu eta ikertzeko.

---

## SARBIDEA

---

- Kultura Ondarearen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua
- Artearen Historiako Lizentziatura eta Gradua
- Arte Ederretako Lizentziatura eta Gradua (Arteko Gradua eta Sorkuntza eta Diseinuko Gradua).

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

- Ikerketa eta irakaskuntza: Ikerketa Arte Garaikidean doktorego programa eta Diziplinarteko Estrategia Zientifikoak Ondarean eta Paisaian (DEZOP) doktorego programa.
- Museoen eta galerien kudeaketa
- Arte erakundeak, galeriak eta museoak (adibidez, departamentu hauetan: kontserbazioa eta zaintza, heziketa, bildumak eta artxiboa eta abar).
- Komisariotza eta kultur kudeaketa

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:** Arte Ederren Fakultatea (Leioa).

**Irakaskuntza mota:** Eskolan bertakoa.

**Hizkuntza:** Gaztelania.

**Gutxi gorabeherako prezioa:** 1.550-1750 euro.

<b>Nahitaezko Gaiak</b> 24 ECTS kreditu	<b>Hautazko Gaiak</b> 24 ECTS kreditu	<b>Proiektuak / Ikerketa-lanak</b> 12 ECTS kreditu	<b>Guztira</b> 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

### Nahitaezkoak

- Arte Garaikidea ikertzeko tresneria, dokumentazio eta metodologia-gaiak
- Arte Garaikidearen kontserbazio prebentiboa, arazoak eta hautabide berriak
- Erakusketen edukia eta diskurtsoa
- Arte Garaikidea kontserbatzeko metodologia eta esku-hartzeko irizpideak
- Joera berriak Arte Garaikideko erakusketen kudeaketan
- Formak, Gaiak eta Motiboak Arte Garaikidean
- Arte Garaikidearen tipologiak: ikonografia eta industria

### Hautazkoak

- Azterketa zientifikoak, beharra eta aplikazioa: azterketa kimikoak
- Legeria, Merkatua eta Kritika
- Azterketa Fisikorako Metodoak: X Izpiak eta Infragorrien Erreflektografia Arte Garaikidean
- Arte garaikidearen barru eta kanpoko jatorriko patologia arruntak
- Arte Garaikideko museoetako funtzioei eta protokoloiei buruzko praktikak
- Arte Garaikideko Ikerketa Ildoak
- Arte Garaikidearen tipologia esperimentalak eta bestelako kontserbazio-hautabideak

## HARREMANETARAKO

**Arduraduna:** Ismael Manterola Ispizua

**Tel:** 946015782

**Posta elektronikoa:**

ismael.manterola@ehu.eus

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

- Asociación Cultural Consonni
- Bahía La Ediciones
- Brancas Escartin S.L. (Sala Moyua)
- Centro Andaluz de Arte Contemporáneo
- Fundación ARTIUM de Álava
- Fundación Bilbao Arte Fundazioa
- GALERÍA MICHEL MEJUTO
- Galería My Name-s Lolita Art
- Galería Vanguardia
- Museo Centro de Arte Reina Sofía
- Museo GUGGENHEIM BILBAO
- Museo de BELLAS ARTES DE BILBAO
- TABAKALERA
- Sabino Arana Fundazioa
- Una más Una
- Galería PUNTO
- Galería Amelia Arte S.L
- Laboral Kutxa
- TAOM Productora Audiovisual
- ARKO Gestion Cultural
- CIEMAT
- GOAZ
- Gordailu (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- SCGallery
- Labayru
- Bilboko Udala
- Orbeagoz Fundazioa

